# Atzerriko eragiketak-Kanariak-Ceuta-Melilla

*Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.*
*Nolanahi ere, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean eta zerga aitorpenak aurkeztean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.*

# Ez dute berezitasun aipagarririk TicketBAIren ondorioetarako.

Europar Batasunaren barruko emateetan eta esportazioetan ez da ezer berezirik egin behar TicketBAIn.

Eragiketa horiek dokumentatzen dituzten fitxategietan **hartzailea identifikatu behar da** hauetako baten bidez: Batasunaren barruko IFZ-BEZ, pasaportea, herrialdeak emandako agiri ofiziala, etab.

**Banakapena eragiketa bakoitzeko egin behar da**, ondasun ematea edo zerbitzu ematea den zehaztuta.

**Europar Batasunaren barruko eskuraketetan eta inportazioetan EZ da autofakturarik egin behar**; beraz, ez dago TicketBAI betebeharrik.

Oro har, eta batez ere nazioarteko merkataritzan, **bereizketa hau egin behar da:**

Ondasun ematea ==> ondasun higigarri gorpuzdunen salmenta

Zerbitzu ematea ==> aurrekoa ez bezalakoa

TicketBAI araba álava

## BATASUNAREN BARRUKO ERAGIKETAK-HARTZAILEA IFZ-BEZ DAUKAN ENPRESABURUA

**Europar Batasunaren barruko ondasun ematea Europar Batasuneko enpresak diren bezeroei (IFZ-BEZarekin identifikatuta):**

Bezeroaren datuetan IFZ-BEZ eremua bete behar da.

BEZaren araubidearen gakoa 01 da: “Araubide orokorreko eragiketak eta ondoko gakoetan sartzen ez diren gainerako kasu guztiak”. Ondoren BEZaren zergapean eta salbuetsita dagoela adierazi behar da eta salbuespenaren arrazoian 05 ipini behar da: “25. artikuluagatik”.

**Europar Batasunaren barruko zerbitzu ematea Europar Batasuneko enpresak diren bezeroei (IFZ-BEZarekin identifikatuta):**
Bezeroaren datuetan IFZ-BEZ eremua bete behar da. (02 kodea)

BEZaren araubidearen gakoa 01 da: "Araubide orokorreko eragiketak eta ondorengo gakoetan jasotzen ez diren gainerako kasu guztiak". Ondoren, hartzailearen herrialdean egin dela ulertuta, “ez-zergapekoa” hautatu behar da, eta zergapean ez egoteko arrazoian, “Lokalizazio arauengatik” (RL) hautatu behar da. Atzerriko zerga eraginez gero, IE ipini behar da.

# ONDASUN ESPORTAZIOAK ETA ZERBITZU EMATEAK

## Ondasun ematea Europar Batasunetik kanpoko herrialde bateko enpresak diren bezeroei edo Kanarietako, Ceutako edo Melillakoei

Bezeroaren datuetan "Herrialdearen kodea" eremua bete behar da eta 03 "Pasaportea", 04 "Bizilekuko herrialdeak edo lurraldeak emandako nortasun agiri ofiziala", 05 "Egoitza egiaztagiria" edo 06 "Beste frogagiri bat" gakoen bidez identifikatu beharko da "IDType" eremuan. **Bezeroa Kanarietakoa, Ceutakoa edo Melillakoa bada, IFZ identifikazioa zehaztu behar da** eta hartzailearen IFZ ipini behar da.

BEZaren araubidearen **gakoa 02** "Esportazioak" izan behar da. Ondoren BEZaren zergapean eta salbuetsita dagoela adierazi behar da eta salbuespenaren arrazoian E2 ipini behar da: "BEZaren Foru Arauaren 21. artikuluagatik".

## Zerbitzu ematea Europar Batasunetik kanpoko herrialde bateko enpresak diren bezeroei edo Kanarietako, Ceutako edo Melillakoei

Bezeroaren datuetan "Herrialdearen kodea" eremua bete behar da eta 03 "Pasaportea", 04 "Bizilekuko herrialdeak edo lurraldeak emandako nortasun agiri ofiziala", 05 "Egoitza egiaztagiria" edo 06 "Beste frogagiri bat" gakoen bidez identifikatu beharko da "IDType" eremuan. **Bezeroa Kanarietakoa, Ceutakoa edo Melillakoa bada, IFZ identifikazioa zehaztu behar da** eta hartzailearen IFZ ipini behar da.

BEZaren araubidearen jarri beharko diren gakoak hauek izango dira: **gakoa 01** "Araubide orokorreko eragiketak eta ondoko gakoetan sartzen ez diren gainerako kasu guztiak" edo **gakoa 08** "IPSI / IGIC ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren/Kanarietako zeharkako zerga orokorraren kargapeko eragiketak" Kanarietan, Ceutan edo Melillan direnean -. <u>Inoiz EZ 02 gakoa</u>. Ondoren, hartzailearen herrialdean egin dela ulertuta, "ez-zergapekoa" hautatu behar da eta zergapean ez egoteko arrazoian "Lokalizazio arauengatik" (RL) hautatu behar da.

## URRUNEKO SALMENTA–IOSS-OSS araubidekoak –

### Hartzailea PARTIKULARRA edo hala ez dihardduen enpresaburua edo profesionala bada.

**17 gakoa hauek erregistratzeko erabili behar da:** Espainiako edo Europar Batasuneko beste herrialde bateko BEZaren zergapeko eragiketak dokumentatzen dituzten fakturak, erregistratu behar dituenak BEZaren Foru Arauaren IX. tituluaren XI. kapituluan ezartzen diren araubide berezietako bati heldu badio.

- **Europar Batasunetik kanpoko araubidea:** egoitza Europar Batasunean ez duten enpresaburuek eta profesionalek enpresaburu edo profesional gisa jarduten duten enpresaburu edo profesional ez diren hartzaileei ematen dizkieten zerbitzuei aplikatzen zaie.

- **Europar Batasuneko araubidea:** egoitza Europar Batasunean (kontsumo estatua ez beste batean) duten enpresaburuek eta profesionalek enpresaburu edo profesional gisa jarduten duten enpresaburu edo profesional ez diren hartzaileei ematen dizkieten zerbitzuei, Batasunaren barruko urruneko ondasun salmentei eta 8 bis.b) artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz egiten diren Europar Batasunaren barruko ondasun emateei aplikatzen zaie.

- **Inportazio araubidea (IOSS):** hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatzen diren ondasunen urruneko salmentei aplikatzen zaie.

## LOKALIZAZIO ARAUENGATIK ZERGAPEKOAK EZ DIREN ATZERRIKO ERAGIKETAK, ATZERRIKO ZERGA ERAGITEN DUTENAK

**Eragiketa ez dago BEZaren zergapean,** zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo egin delako, baina atzerriko zerga eragiten du.

- Fakturan zerga zein den zehaztu behar da; inolaz ere ezin da izan Espainiako BEZa.

- XML fitxategian zehaztu behar da eragiketa ez dela zergapekoa, ZALen lokalizazio arauengatik, baina atzerriko zerga, ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zerga/Kanarietako zeharkako zerga orokorra edo Europar Batasuneko beste estatu bateko BEZa eragiten duela (IE).

Horrek ez du esan nahi bi dokumentu egin behar direnik. Aitzitik, **fakturazio programa moldatu behar da informazio guztia daukan XML fitxategia sortzeko** faktura jaulki aurretik. Bezeroari emango zaion faktura jaulki ondoren (bi elementu berri: TicketBAI identifikatzailea eta QR kodea), **fitxategia Ogasunera bidaliko da faktura jaulkitzearekin batera, modu automatikoan.**

| Eragiketa mota | Hartzailearen identifikazioa | Eragiketaren gakoa | Eragiketa | Salbuetsia/ez-zergapekoa izatearen gakoa |
|---|---|---|---|---|
| **Europar Batasunaren barruko ondasun ematea** | **IFZ-BEZ (02)** | **01 gakoa** (araubide orokorreko eragiketak eta beste batzuk) | **Zergapekoa eta salbuetsia** | **E5 salbuespena** (25. art.) |
| **Europa Batasunaren barruko zerbitzu ematea** | **IFZ-BEZ (02)** | **01 gakoa** (araubide orokorreko eragiketak eta beste batzuk) | **Ez-zergapekoa** | **Ez-zergapekoa izatearen gakoa** **RL** (lokalizazio araua) **IE** (atzerrian zergarik izanez gero) |
| **ZALetik kanpoko zerbitzu ematea, ez barnekoa / Atzerriko salmentak, ez esportazioa ez Batasunaren barruan** | **~~IFZ-BEZ~~ EZ (02)** Herrialde kodea sartu | **01 gakoa** (araubide orokorreko eragiketak eta beste batzuk) | **Ez-zergapekoa** | **Ez-zergapekoa izatearen gakoa** **RL** (lokalizazio araua) **IE** (atzerrian zergarik izanez gero) |

**TicketBAI informazio eskema.**
**BEZaren ondorioetarako EZ dira lokalizazio arauak.**

# KANARIETAKO, CEUTAKO ETA MELILLAKO ERAGIKETAK

TicketBAI araba álava

| Eragiketa mota | Hartzailearen identifikazioa | Eragiketaren gakoa | Eragiketa | Salbuetsia/ez-zergapekoa izatearen gakoa |
|---|---|---|---|---|
| **Zerbitzua ematea Kanariei, Ceutari edo Melillari (jaulkitzaileak ez dauka establezimendu iraunkorrik Kanarietan)** | **~~IFZ-BEZ~~ EZ (02)** | **08 gakoa** (ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren/Kanarietako zeharkako zerga orokorraren zergapeko eragiketak) | **Ez-zergapekoa** | **Ez-zergapekoa izatearen gakoa**<br>**RL** (lokalizazio araua)<br>**IE** (atzerrian zergarik izanez gero) |
| **Ondasun ematea-esportazioa/Kanariak** | **~~IFZ-BEZ EZ~~ (02)** | **02 gakoa** (esportazioa) | **Zergapekoa eta salbuetsia** | **E2 salbuespena**<br>(21. artikulua) |
| **Establezimendu iraunkorrik gabe Kanarietan/Ceutan/ Melillan kokatutako ondasunak ematea** | **~~IFZ-BEZ~~ EZ (02)** | **08 gakoa** (ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren edo Kanarietako zeharkako zerga orokorraren zergapeko eragiketak) | **Ez-zergapekoa** | **Ez-zergapekoa izatearen gakoa**<br>**RL** (lokalizazio araua)<br>**IE** (atzerrian zergarik izanez gero |
| **Establezimendu iraunkorretik Kanariak/Ceuta/Melilla** | Dagokiona | **54 gakoa**<br>(Kanarietako, Ceutako edo Melillako establezimendu iraunkorretik egindako eragiketak | **Ez-zergapekoa** | **Ez-zergapekoa izatearen gakoa**<br>**IE** (atzerrian zergarik izanez gero) |

# ATZERRIKO ERAGIKETAK 17 GAKOA

| Eragiketa mota | Hartzailearen identifikazioa | Eragiketaren gakoa | Eragiketa | Salbuetsia/ez-zergapekoa izatearen gakoa |
|---|---|---|---|---|
| **Leihatila bakarra IOSS/OSS araubidea Xedean, ZALetik kanpo** | **~~IFZ-BEZ~~ EZ (02)** | **17 gakoa** | **Ez-zergapekoa** | **Ez-zergapekoa izatearen gakoa**<br>**RL** (lokalizazio araua)<br>**IE** (atzerrian zergarik izanez gero) |
| **Leihatila bakarra IOSS/OSS araubidea Jatorrian, ZALen** | **~~IFZ-BEZ~~ EZ (02)** | **17 gakoa** | **Zergapekoa eta salbuetsi gabea** | |

* 17 gakoa: TBAI informazioa eman behar duten enpresaburuen eragiketak, leihatila bakarrekoak (IOSS/OSS). Eragiketa horiek honelakoak izan daitezke: ez-zergapekoak (taulako lehen lerroa) edo zergapekoak eta salbuetsi gabeak (taulako bigarren lerroa).

# TICKETBAI ZERRENDA MOTAKO GAKOAK

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ALDIZKARI OFIZIALA
2022ko abenduaren 28a, asteazkena • 149 zk.

araba.eus

## II. ZERRENDA MOTAKO EREMUETAN ERABIL DAITEZKEEN GAKOAK ETA BALIOAK.

**L0 → TicketBai bertsioaren identifikatzailea.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| 1.2 | Erabilitako eskemaren egungo bertsioa. |

**L1 → Herrialdearen kodea.**

Informazioa indarrean dagoen herrialde eta lurraldeen kode zerrendaren arabera emango da.

**L2 → Egoitza dagoen herrialdeko identifikazio motak.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| 02 | IFK-BEZ. |
| 03 | Pasaportea. |
| 04 | Egoitza duen herrialdeak edo lurraldeak emandako identifikazio agiri ofiziala. |
| 05 | Bizileku ziurtagiria. |
| 06 | Beste frogagiri bat. |

**L3 → Zenbait hartzaile.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| S | Bai. |
| N | Ez. |

**L4 → Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| N | Faktura igorleak berak egin du. |
| T | Faktura hirugarren batek egin du. |
| D | Faktura eragiketaren hartzaileak egin du. |

**L5 → Faktura erraztua.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| S | Bai. |
| N | Ez. |

7



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ALDIZKARI OFIZIALA
2022ko abenduaren 28a, asteazkena • 149 zk.

araba.eus

**L6 → Faktura erraztu baten ordez egindako faktura.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| S | Bai. |
| N | Ez. |

**L7 → Faktura zuzentzailearen kodea.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| R1 | Faktura zuzentzailea: Zuzenbidean oinarritutako akatsa eta BEZaren Legearen 80. artikuluaren lehen, bigarren eta seigarren puntuetako arrazoiak. |
| R2 | Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Hiru artikulua. |
| R3 | Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Lau artikulua. |
| R4 | Faktura zuzentzailea: gainerakoak. |
| R5 | Faktura erraztua zuzentzeko faktura. |

**L8 → Faktura zuzentzailearen mota.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| S | Faktura zuzentzailea: ordezpena. |
| I | Faktura zuzentzailea: diferentzia. |

**L9 → BEZaren araubide bereziaren eta zergetan eragina duten eragiketen gakoak.**

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| 01 | Araubide orokorreko eragiketak eta ondoko gakoetan sartzen ez diren gainerako kasu guztiak. |
| 02 | Esportazioa. |
| 03 | Erabilitako ondasunen, arte gauzen, antzinako gauzen eta bildumako gauzen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak. |
| 04 | Inbertsio urrearen araubide berezia. |
| 05 | Bidaia agentzien araubide berezia. |
| 06 | Entitate taldeen BEZaren araubide berezia (maila aurreratua). |
| 07 | Kutxa irizpidearen araubide berezia. |
| 08 | IPSI / IGIC (Ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zerga / Kanarietako zeharkako zerga orokorra) zergen kargapeko eragiketak. |
| 09 | Besteren izenean eta kontura ari diren bidaia agentziek egindako zerbitzuen fakturazioa (Fakturazioaren Araudia, 3. xedapen gehigarria). |
| 10 | Hirugarrenen kontura (bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura, alegia) lanbide ordainsariak, jabetza intelektual edo industrialaren edo egile jabetzaren ondoriozko eskubideak edo bestelakoen kobrantza, baldin eta kobratzaileak beren eginkizunen artean kobrantza egiten duten sozietate, elkarte, lanbide elkargo edo bestelako erakundeak badira. |
| 11 | Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak. |
| 12 | Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabeak. |
| 13 | Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu |

8

# TICKETBAI ZERRENDA MOTAKO GAKOAK



araba.eus

| | |
|---|---|
| | gabekoak. |
| 14 | BEZ sortu gabe duten fakturak, hartzailea administrazio publikoa den obra egiaztapenetan. |
| 15 | BEZ sortu gabe duen faktura, segidako traktuko eragiketetan. |
| 17 | XI. Kapituluko IX. tituluan (OSS eta IOSS) aurreikusitako erregimenetako bati atxikitako eragiketa |
| 19 | Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian (NAAAB) dauden jardueren eragiketak. |
| 51 | Baliokidetasun errekarguaren araubideko eragiketak. |
| 52 | Araubide erraztuko eragiketak. |
| 53 | BEZaren ondorioetarako ez enpresari ez profesional ez diren pertsonek edo erakundeek egindako eragiketak. |
| 54 | Kanarietan, Ceutan eta Melillan kokatutako establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak. |

L10 → *Zergapeko eragiketak salbuesteko arrazoiak.*

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| E1 | BEZaren Legearen 20. artikuluaren arabera salbuetsita. |
| E2 | BEZaren Legearen 21. artikuluaren arabera salbuetsita. |
| E3 | BEZaren Legearen 22. artikuluaren arabera salbuetsita. |
| E4 | BEZaren Legearen 23. eta 24. artikuluen arabera salbuetsita. |
| E5 | BEZaren Legearen 25. artikuluaren arabera salbuetsita. |
| E6 | Beste arrazoi batengatik salbuetsita. |

L11 → *Salbuetsi gabeko eragiketa.*

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| S1 | Subjektu pasiboaren inbertsiorik gabe. |
| S2 | Subjektu pasiboaren inbertsioarekin. |

L12 → *Baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa.*

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| S | Bai. |
| N | Ez. |

L13 → *Kargapean ez egoteko arrazoia.*

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| OT | BEZaren Legearen 7. artikuluaren arabera. Kargapean ez dauden beste kasu batzuk. |
| RL | Lokalizazio arauen arabera. |
| VT | Ez subjektua, hirugarrenen kontura egindako salmentak (BEZaren eta PFEZaren |

9





araba.eus

| | |
|---|---|
| | ondorioetarako konputagarria ez den zenbatekoa) |
| IE | Lokalizazio-arauak direla-eta ZALen subjektua ez dena, baina atzerriko zerga, IPSI/IGIC edo Eliko beste estatu bateko BEZa ezartzen duena. |

10

*Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.*
*Nolanahi ere, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean eta zerga aitorpenak aurkeztean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.*